

## 1.- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN DIRU LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA.

Urtarrilaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2010eko uztailetik abendura bitartean IGEek egindako jarduerentzako diru laguntzen ebazpena. Data horretatik aurrera, 15 eguneko epea dago (otsailaren 2ra artekoa) gastuen egiaztagiriak aurkezteko. Gastuak justifikatzeko, III. eranskina bete behar da, eta egindako gastuen **jatorrizko fakturak** aurkeztu behar dira. Aurreko ikasturteetan bezala, IGEei gomendatzen diegu dokumentazioa bete eta BAIKARARA igortzea, BAIKARAK berrikusi eta Hezkuntza Ordezkaritzara eraman dezan.

## 2.- 2011-2012 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO KANPAINA

Matrikulazio kanpaina urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra izango da. Aurreko ikasturteetan bezala, BAIKARAK ikastetxeei eta IGEei dei egin nahi dizue tokian tokiko hedabideetan publizitatea sar dezazuen; horretarako 60 euroko laguntza banatzen da. Publizitatea zenbait ikastetxek elkarrekin eginez gero, ikastetxe bakoitzerako 30 euroko laguntza izango da. Diru laguntza hori eskuratzeko baldintza bakarra dago: BAIKARAREN anagrama txertatu behar da publizitatean.

Aurten, berrikuntza modura, EHIGE Konfederazioak bere publizitate kanpaina egingo du, kartelen eta prentsako iragarkien bidez. Publizitate horretan, seme-alabak eskola publikoan matrikulatzeko arrazoiak emango dituzte eskola publikoko guraso diren zenbait pertsonaia ospetsuk.

Matrikulazio garaiarekin bat etorrita, EHIGE Konfederazioak euskal eskola publiko laikoaren aldeko kanpaina ere abiatuko du. Kanpaina horren helburu nagusia haxe izango da: familiei aditzera ematea zein garrantzizkoa den Erljioko gaia ez hautatzea; izan ere, eskola laikoaren alde egiteaz gainera, aukera ematen du curriculumeko nahitaezko gaietan eskola ordu gehiago izateko. Kanpaina horri lotuta, idatzi bat igorriko zaie IGE guztiei, ikastetxeetan zabal dezaten.

## 3.- JARDUNBIDE EGOKIEN LEHIAKETA, IGEETAN

EHIGE Konfederazioak lehiaketa antolatu du, lehen aldiz, honako helburu hauekin:

- IGEek egunez egun egiten duten lana aintzatestea.
- Lan hori zertan den jendaurrean erakustea.
- IGEen artean ideia trukea erraztea eta sustatzea.

IGEEK egiten dituzten hezkuntza jarduera oro aurkez daitezke (2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetakoak), sinpleenetatik konplexuenera; balio berezia emango zaie beste IGE batzuentzat eredu izan daitezkeenei.

Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 15ean amaituko da; ondoren, topaketa bat egingo da, lehiaketara aurkeztutako esperientzien berri emateko.

Irabazleak 1.500 euroko saria jasoko du; 1.000 euroko saria izango da bigarren sailkatutakoarentzat, eta 500 eurokoa, hirugarrenarentzat. Sariak Eskola Publikoaren Jaiaren egunean banatuko dira.

## 4.- ESKOLA MAPA

Abenduaren 13an bilera egin genuen Ikastetxeen zuzendari Marcelino Hernándezekin eta Gipuzkoako ordezkaritzako plangintza arduradunekin. Eskola mapa gaur egungo egoerara egokitze aurreikusitako jardueren berri eman ziguten bilera hartan. Informazio hauek azaldu zizkiguten, hain zuzen ere:

### A.- Gaur egungo eskola maparen egokitzapenean lehentasunez moldatu beharreko alderdiak:

- Espazio eta edukiera arazoak dituzten zentroak.
- 21/2099ko Dekretuan jaso gabeko tipologietako zentroak.
- Udalerrietan gertatutako aldaketa demografikoak.
- Gaur egungo eskola mapan sumatzen diren egoera zaharkituak, hizkuntza ereduaren eskaintzaren aldaketak eraginak nagusiki.

Hezkuntza Sailak programa informatiko bat sortu du eskuragarri dauden datu guztiak ebaluatzeko (jaiotza tasa, udal egitasmo urbanistikoak, toki eskaintza...); 2020 helmuga hartuta ikastetxeek izango duten bilakaera proiektatu nahi da horrela, ikusteko eskola plaza gehiegi edo gutxiegi dauden, espazioak falta diren edo sobera dauden...

Egindako proposamenen bidez Administrazioaren plangintza irizpidea eta familiek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea uztartu nahi dira.

Plangintzarako erreferente gisa 21/2009 Dekretuko irizpideak hartuko dira.

Dekretu horretan, 4 urteko epea aurreikusten da plangintza berria egiteko, baina epe hori modu malguan hartuko da.

Administrazioaren proposamenei dagokienez, garrantzizkoa da hezkuntza komunitate osoaren iritzia biltzea aldeztu aurretik. Azpimarratu beharra dago plangintzaren prozesuan ikastetxearen zuzendaritzak duen protagonismoa; ikastetxeko zuzendariarena ez ezik, OOG-Eskola Kontseiluko lehendakariarena ere.

## **B.- Zehazteke dauden zenbait alderdi:**

- Ikastetxeen atxikipena, batez ere Haurreskolena eta haur-lehen hezkuntzako ikastetxeena.
- IPI-CPI berrien (2-16 urte bitarterako edo 2-18 urte bitarterako eskaintza duten ikastetxeen) antolaketa egitura: zirriborroa prestatzen ari dira, eta prest dagoenean, eztabaidarako helaraziko digute.

Atal hauek kontuan hartu beharko lituzke zirriborroak:

- o Hezkuntza proiektu bateratua
- o Langile taldearen hornidura eta gaur egungo baliabideei eustea
- o Zuzendaritza bakarra, bi ikasketaburutzak
- o Eraikinen mantentzearen ardura, gastuak...
- o Langile administrariaren hornidura

## **C.- 2010/2011 ikasturteko egoera**

Jarduerak proposatzeko mugak:

- Ekonomikoak (oinarrizko obretarakoak). Aurreko plangintzari eusterik ez dago (2008-2012 Obren Plangintza), Plangintza horretako jardueretarako hornidura ekonomiko nahikorik ez dagoelako. Plangintza hori berraztertu eta urtez urteko obra plangintzak egingo dira, urtean urteko aurrekontuei egokituak.

- Sailak kudeaketa ahalmen mugatua du. Sailaren baliabideak kontuan hartuta, benetan zer gairi aurre egin diezaikeen planteatu behar da.

## **2010-2011 ikasturteko lehentasunezko jarduerak**

- Hernaniko eta Beasaingo DBH-Batxilergoko ikastetxeen fusio prozesuei jarraipena ematea.
- Azkoitia: obrak eta espazioak. DBHrako eraikin berria, 2014rako. Trantsizio aldirako antolaketa (ikasgelen kokalekua, zikloak...)
- Donostia eta Irunen eskualde banaketa berriak.
- Urnieta eta Lezoko Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetako hezkuntza komunitatearekin harremanak hastea, ikastetxe horiek batuta 2-16 urte bitarteko eskaintza izango duen ikastetxe bakarra sortzeko prozesuaz eztabaida egiteko. Prozesu hori esperientzia pilotua izango litzateke DBHko ikastetxe independenteak (12-16 urte) dituzten herrientzat, mota horretako ikastetxeen tipologia ez baita agertzen eskola mapa berriaren irizpideetan.

Honako ikastetxe hauek daude egoera horretan:

Kurtzebarri BHI (Aretxabaleta), Soraluze BHI (Soraluze), Itzio BHI (Eibar), Mogel BHI (Eibar), Mendata BHI (Deba), Xabier Munibe BHI (Azkoitia), Aralar BHI (Alegia), Erniohea BHI (Billabona), Egape BHI (Urnieta), Landaberri BHI (Lasarte), Arantzatzuko Ama (Donostia), Lauaizeta BHI (Donostia), C. Gamón BHI (Erresteria), Langaitz BHI (Erresteria), Lezo BHI (Lezo), Elizalde BHI (Oiartzun), Dunboa BHI (Irun), Hirubide BHI (Irun), Toki Alai BHI (Irun), Txingudi BHI (Irun).

Ikastetxe horietan, oro har, Hezkuntza Sailak ez ditu bategiteak sustatu nahi, aldeztu aurretik hezkuntza komunitateak gaia eztabaidatu eta akordioa lortu gabe.

## 5.- PISAREN ETA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

Azken asteetan PISA probaren eta ebaluazio diagnostikoaren emaitzak argitara eman dituzte.

### 1.- PISA PROBA:

Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Ikasleen adina: 15 urte (DBHko 4. maila).
- Proba 2009ko apirilean eta maiatzan egin zen.
- Ikasleen %85i gaztelaniaz egin zitzaion proba.
- Herralde parte-hartzaileen kopurua: 65 (30, ELGAren esparrukoak)
- Espainiako estatuko autonomia erkidego parte-hartzaileen kopurua: 14
- Euskadiko parte-hartzaileak: 40 ikastetxe – 4.768 ikasle

Euskadiko emaitzen laburpena:

- **Irakurmen gaitasuna:** Euskadik 2006an baino emaitza hobekak izan ditu (487tik 494ra) eta ELGAko batez bestekoari eutsi dio (493).  
Emaitzak: ELGA: 493 / Espainia: 481 / Euskadi: 494  
Errendimendu mailak (1 mailaren eta 6 mailaren arteko taula):  
1etik beherako maila: Euskadi (%15) - ELGA (%20)  
Maila altuak (5 eta 6): Euskadi (%4) - ELGA (%7)
- **Matematika gaitasuna:** Euskadiren emaitzak nabarmen hobekak izan dira, 2006arekin alderatuta (501etik 510era), eta lehen aldiz ELGAren batez bestekoa gainditu du (496).  
Emaitzak: ELGA: 496 / Espainia: 483 / Euskadi: 510  
Errendimendu mailak (1 mailaren eta 6 mailaren arteko taula):  
1etik beherako maila: Euskadi (%15) - ELGA (%25)  
Maila altuak (5 eta 6): Euskadi (%13) - ELGA (%12)
- **Gaitasun zientifikoa:** Euskadik 2006ko emaitzei eutsi die (495etik 495era), ELGAko emaitzez azpitik (501).  
Emaitzak: ELGA: 501 / Espainia: 488 / Euskadi: 495  
Errendimendu mailak (1 mailaren eta 6 mailaren arteko taula):  
1etik beherako maila: Euskadi (%14) - ELGA (%20)  
Maila altuak (5 eta 6): Euskadi (%3) - ELGA (%8)

### 2.- 2010EKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Ebaluatutako gaitasunak:

- Atal finkoa (urtero ebaluatzen da): euskarazko eta gaztelaniako hizkuntza komunikaziorako gaitasuna, matematikarako gaitasuna.
- Atal aldakorra (urtero aldatzen da): gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Ebaluatutako ikasleak:

- Lehen Hezkuntzako 4. maila: 19.036 ikasle – 982 talde – 522 ikastetxe.
- DBH 2: 18.021 ikasle - 858 talde - 333 ikastetxe.

Ondorio orokorrak (2009arekiko konparazioa):

- Emaitzetan hobekuntza nabaria izan da hizkuntza komunikaziorako gaitasunean, bai gaztelaniaz bai euskaraz. Hobekuntza hizkuntza eredu guztietan gertatu da, gainera.
- Matematikarako gaitasunean, bere horretan eutsi diote DBH 2ko emaitzek, eta zertxobait behera egin dute Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzek (250 puntutik 248ra).
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari dagokionez, ez dago konparazioa egiteko daturik, lehen aldia baita gaitasun hori ebaluatzen dena. Hala ere, emaitzak ebaluatutako beste gaitasunetan estandartzat jotzen denarekin bat datozela esan daiteke.

#### A) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

	<u>Lehen Hezkuntzako 4. maila</u>	<u>DBH 2</u>
- Hasierako maila:	%17,9	%17,4
- Tarteko maila:	%51,7	%51,6
- Maila aurreratua:	%30,5	%31,0

## B) Matematikarako gaitasuna

	<u>Lehen Hezkuntzako 4. maila</u>	<u>DBH 2</u>
- Hasierako maila:	%15,0 (14,7, 2009an)	%15,8 (15,1)
- Tarteko maila:	%52,5 (49,5)	%58,1 (60,0)
- Maila aurreratua:	%32,5 (35,8)	%26,1 (24,9)

Matematikako gaitasunaren emaitzekin dagoeneko egin daiteke 2009ko aplikazioko emaitzekiko alderaketa:

- Lehen Hezkuntzako 4. maila: 2009: 250 puntu / 2010: 248 puntu (-2)
- DBH 2: 2009: 250,3 puntu / 2010: 250 puntu (-0,3)

## C) Gaztelaniako gaitasuna

	<u>Lehen Hezkuntzako 4. maila</u>	<u>DBH 2</u>
- Hasierako maila:	%19,8 (17,9, 2009an)	%12,1 (16,0)
- Tarteko maila:	%46,4 (55,1)	%55,3 (54,7)
- Maila aurreratua:	%27,1 (35,8)	%28,6 (29,3)

Gaztelaniako gaitasunaren emaitzekin dagoeneko egin daiteke 2009ko aplikazioko emaitzekiko alderaketa:

- Lehen Hezkuntzako 4. maila: 2009: 250 puntu / 2010: 256 puntu (+6 puntu)
- DBH 2: 2009: 250 puntu / 2010: 252 puntu (+2 puntu)

## D) Euskarako gaitasuna

	<u>Lehen Hezkuntzako 4. maila</u>	<u>DBH 2</u>
- Hasierako maila:	%27,1 (32,9, 2009an)	%33,5 (38,1)
- Tarteko maila:	%43,6 (36,6)	%42,4 (43,6)
- Maila aurreratua:	%29,2 (30,5)	%24,1 (18,4)

Euskarako gaitasunaren emaitzekin dagoeneko egin daiteke 2009ko aplikazioko emaitzekiko alderaketa.

- Lehen Hezkuntzako 4. maila: 2009: 250 puntu / 2010: 254 puntu (+4 puntu)
- DBH 2: 2009: 250 puntu / 2010: 258 puntu (+8 puntu)

Datuen bilakaera, ereduaren arabera:

- Lehen Hezkuntzako 4. maila:  
A eredia (186tik 194ra) / B eredia (243tik 247ra) /  
D eredia (263tik 264ra)
- DBH 2  
A eredia (189tik 201era) / B eredia (251tik 255era) /  
D eredia (265etik 272ra)

Bi ebaluazioen txostenak BAIKARAREN webgunetik deskarga daitezke ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))

## 6.- 2011KO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Euskal Eskola Publikoaren 20. Jaia 2011ko ekainaren 5ean egingo da, Bilbon; Alde Zaharra, Areatza... hartuko ditu jaiguneak.

Jaiaren aurkezpen ofiziala abenduaren 14an egin zen, eta eskaria egiten duten ikastetxeei datozen asteetan bidaliko zaie EHIGE Konfederazioak salgai jarritako materiala.

## 7.- GALDE-ESKEA